


# ABERUENKIDIA

Egilea:

**JOAN MARI TORREALDAI**



Martin Ugalde (1921-)

## **Han eta hemen**


Martin Ugalde Orradre Andoainen jaio zen 1921eko azaroaren 11n, San Martin egunez. Eskola publikoan egin zituen lehen ikasketak, eta gero La Salle ikastetxean. Batxilergoko bi urte egin zituen Andoainen, eta gainerakoak ahal zen moduan gero, bai Bilboko Belandia Akademian eta geroago Donibane Garazi eta Donibane Lohizuneko kolonietan.

Ama etxeakoandrea zen. Irakurzale gogoratzen du Martinek. Aita, berriz, tailer bateko nagusia, EAJko zinegotzia Andoaingo udaletxean, eta «saltseroa», Martinek esaten duenez. Aitaren saltsatan ibili zen Martin, dantzari eta kirolean.

Martinek eta familiak 1936ko abuztuan utzi behar izan zuten Andoain. Hemendik Heranira doaz, gero Donostiara, Zumaiara, Mundakara eta Bilbora. Eta Bilbo galtzean, Santanderrera, barkua hartzera. Momentu honetan sakabanatzen da familia: aita galdua, lehenengo Asturiasen eta gero Bartzelonan; anaia txikia 13 urterekin Errusiara ebakuatua, lehenengo Stalingradora eta gero Odessara. Eta Martin eta ama *New Castle* ontzi ingelesean Frantziara.

Nièvre-ko Château Chinon herrixkan aurkitzen dugu 1937ko uztailan, komunista baten etxean, amarengandik aparte. Bederatzi hila-





Billabonako dantzari-txiki taldea. Atia, Pello, eskuinean, azken muturrean. Martin, kapitaina, erdian. Amasan egin zuten lehen saioa. (1934)

beteren buruan, ama aitarengana doa Bartzelonara eta Martin Eusko Jaurlaritzak antolatu dituen kolonietara jaisten da Ipar Euskal Herrira.

Urte bete egon zen Donibane Garazikoan eta 1939an Donibane Lohizuneko koloniara pasa ziren 16 urte inguru zituztenak, zaharrenak. Kolonietan bizi eta ikasi egin ohi zuten.

Mundu-gerra lehertzean desegiten da Donibane Lohizuneko kolonia. Latza eta gogorra izan da une hau Martinentzat: ez familiarik, ez lagunarterik. 1940ko maiatza izango zen Donibane Lohizunen solte dagoen gaztea agintari frantsesek hartu eta Gurs-eko kontzentrazio-zelaira eraman zutenean, ale-

manak sartu aurretik. Hilabete eta erdi egin zuten bertan, Iñaki Azpiazuk handik atera zuen



Martin Château Chinon-eko exilioan. Goiko ilaran eskubitara dago, amaren ondoan. Hernaniko izeba-lehengusuak dira besteak. (1937)

arte, Ameriketara aitarengana joateko txartela bazuela eta.

Donibane Lohizunera 1940ko ekainean itzultzen da eta hemen dagoela ikusten ditu alemanak sartzen, San Joan egunez. Hautabehar baten aurrean jartzen dute frantsesek Martin: alemanentzat armamentu fabrika batean lan egin ala Andoaina itzuli. Eta salbokondukto batekin dator Andoaina.

Martin 1940ko urriaren 17an iritsi zen Andoaina. Ama koinataren etxean bizi da. Aitaren tailerrak nagusi berria du. Lana eskatu hemen, eta ezetz. Labordek emango dio, azkenik, orain *Martin Ugalde Kultur Parkea* den lekuan.

Herritik ateratzerik ez du, igandero goardia-zibiletara joan beharra du. Herriko jendea ez da ausartu ere egiten agurtzera. Markatua dago Martin, markatua, Frantziatik datorren «rojo-separatista» baten semea baita.

Txartel horrekintxe joan behar izan zuen soldaduskara, Andoainen bi urte eman ondoren.

JEFATURA DE LA FRONTERA NORTE DE ESPAÑA IRUN

Nº 153

TARJETA DE EVACUACION

El portador *Martin Ugalde Ornadre* de 19 años, natural de *Andoain* (Sus progenitores) procedente de Francia se traslada en evacuación forzosa ordenado por mi Autoridad a *Andoain* (Sus progenitores) residencia que ha manifestado tenía en Julio de 1936.

Enterañaba 17 de Octubre de 1940

EL JEFE DE LA FRONTERA NORTE.

El portador a la llegada al punto de destino, tiene la obligación de hacer su presentación en la Comisaría de Fuentes de Investigación y Vigilancia respectiva o ante el Comandante del Puesto de la Guardia Civil donde aquella no existiere, entregando al efecto la tarjeta de que es portador.

«Tarjeta de evacuación» edo Estatu frantziarretik etxera itzuli ahal izateko txartela. (1940)

Tetuan-era bidali zuten 1942an. Bi urte eta erdi egin zituen, eta, Laborde lantokia militarizatua zegoenez, falta ziren sei hilabeteak bar-katu egin zizkioten.

Bizimodu berri bat hasten du bueltakoan: soldata ona du, etxebizitza alkitatzen du, bizikleta berria erosi, *Euskalduna* elkartearen idazkari da, futbolista ere bai, neska laguna ere badu. *Diario Vasco*-n Andoaingo kronikak ere berak idazten ditu, 1946-1947 urteetan.

Bitarte horretan, ordea, gestioak egin eta egin dabil Martin aitarengana joateko. Aita, bere aldetik, Venezuelako enbaxadorearen bidez, Odessan daukan semea ekarrarazi nahita dabil. Eta 1947ko urriaren 12an Venezuelarako itsasontzia hartzen du Martinek amarekin batera. Euskal Herrian ezin izan dutena, Caracasen lortzen dute, familia osatzea, elkarrengandik aparte hamar urte luze igaro eta gero.

26-90

COMPANIA TRASATLANTICA

TURISTA B \*g.º 7131

TALON PARA EL PASAJERO

D. Emilio Nolasco Gredos  
y familia

Compañía N.º CLASO  
Libro N.º GENERAL

PUERTO DE DESTINO New York  
Embarque 211300  
03 Septiembre de 1947

Importe neto pasaje	5,256
Impuestos	460
IMPORTE TOTAL	5,716

PARTE DE COMILLAS  
10-11-47

Oficina emisora: Bilbao  
Fecha 04 Septiembre de 1947

NOTA.—Conservar esta tarjeta, cualquier am-pliado de la Empresa podrá exigir su presentación.

«Marqués de Comillas» itsasontzian joan ziren Venezuelara Martin eta ama. Martinen bidai txartela. (1947)



## Andoaindik Caracasera

Martinek 25 urte ditu Caracaseko lurra zapaltzen duenean. Familia osatzearren joana da hara. Beste helbururik gabe. Berak ere ez daki zer bilakatuko den, ez daki zertarako balio duen. 25 urte ditu, baina ezin izan ditu bere zaletasunak garatu, gerrak mundua aldatu baitzion.

Martin Ugaldere ametsa idaztea da. Baina burdinkiak eta elektragailuak salduz hasi da lanean herriz herri. Hurrengo urtean *General Motors*-en hasten da. Zortzi hilabete bertan egin ondoren, 1949an egiten du jauzia: *General Motors*-eko lan finkoa bertan behera utzi eta hiru aldiz gutxiago irabaziz *free lance* gisa hasten da idazten *Elite*-n, Caracaseko astekari bakarrean. Astean bi erreportaia.

Caracaseko Euskal Etxean Euskal Herri txiki bat aurkitu zuela idatzi du Martinek. Bertan babesten da hasieran; eta gerora ere, «venezolartu» eta gero ere, beti egon da Euskal Etxeari lotua. Eusko Alderdi Jeltzaleko karnera hartzen du. ELAkoa ere bai. Eta 1948an Caracaseko *Eusko Gaztedi* sortzen du, baina «misto», eskandalu eta guzti. Bertako *Euzkadi* aldizkariaren zuzendari ere bada. Euskal Etxeko lehendakari ere izango da, 50eko hamarkadaren amaiera aldera. Aldi batez bera izan da, EAJren kanpoko (Hegoameriketako) batzordeko lehendakari ere. Esilioko hainbat aldizkariren (*OPE*, *Alderdi*, *Tierra Vasca*...) eta berdin barneko argitalpenen (*Zeruko Argia*) zubi eta banatzaile bera izan da urte askotan.



Martin Ugalde, Caracaseko Euskal Etxeko buruzagitzan. (1960)

## Venezuela, beste aberria

Baina Martinek ez du Euskal Etxeko ghettoan ito nahi. Bertakotu egin nahi du, «venezolar-tu». 1952an Venezuelako naziotasuna hartzen du. Erbestea izanik ere, Venezuela ez da Martinentzat herri arrotza, ez da bigarren aberria. Baizik eta beste aberria, ez bigarrena. «Mi otra patria» esaten du berak.

Eta bere karrera profesionala bertako gizarte-ko parametrotan kokatzen du. Kazetari eta idazle izan nahi du, idazle eta kazetari venezolar. Martinek venezolarrari idatzi nahi dio, venezolarrez. Hizkuntza trebatzeko Arano irakaslearekin irakurketa plan bat egiten du. Plan horretan autore latinamerikarrek eta venezolarrek dute lehentasuna. Bere burua prestatzeko ahalegin etengabeko horretan, berriz, Ipar Ameriketara jo izan du behin eta berriz: bi aldiz literatur ikastaroak egitera, eta beste behin kazetaritza ikastera. Ingelesa ikastera ere bai.

Berrogeita hamarreko hamarkadan finkatzen dira Martinen aukerak. 1949an, kazetaritza aukeratu du ondorio guztiekin. *Free lance* gisa hasi da lanean *Elite* astekarian. Lehen lanak kirolen ingurukoak dira, apalak. Baina berehala erredaktoreburu kargua hartzen du. Praktikan zuzendari.

Arrakasta paregabea izan zuen 1950ean, Carlos Delgado Chalbaud politikoa hil zute-nean, Martinek egin zuen erreportaiak. Hamar bat mila botatzetik ehun mila botatzera pasa omen zen *Elite* Martinen lanari esker. Bide



Martin Ugalde Jose Antonio Agirre lehendakariarekin prentsaurrekoa prestatzen Caracasen. (1958?)



Venezuelako txokoak bisitatu zituen erreportari gisa, venezuelarrei haiek deskubriarazteko






Gaston Debré frantses idazle eta arte-kritikoa, elkarrizketatzen. (1950 aldera)

batez, Martinen izena ezagutzera eman zuen erreportaia horrek. Eta berehala hasi zitzaizkion deiak: *El Nacional* egunkari sonatuak fixatu nahi izan zuen. Geroago hasi zen *El Nacional*-era erreportaiak bidaltzen. 1955ekoa da bere lehen lankidetzatza *El Nacional*-en.

*Elite*-n baimena eskatu eta ingelesa ikastera doa Ipar Ameriketara, urte t'erdirako, 1952an. Ann Arbor-en ingeles ikastaro bat egiten du bi hilabetez. Hurrengo hilabeteetan New York-eko unibertsitatean literatur ikastaroak burutzen ditu. Egonaldi oparoa izan da



Martinen bulegoa Creole-n. Rikardo Libanorekin dago, euskalduna eta Creole-n ekonomista gisa lan egiten zuena. (1968)



Martin Ugalderen pasaporte venezuelarra. 1951n nazionalizatu zen Martin

hau idazlanen aldetik ere, ekonomikoki bizi ahal izateko ipuinak, erreportaiak eta bestelako lanak bidaltzen baititu *Elite*-ra.

Ameriketatik bueltan enpresa aldatzen du. *Creole* taldera pasatzen da. Ipar Ameriketako petrolio konpainia honek bi aldizkari ditu: *El Farol* eta *Nosotros*. *El Farol* aldizkari literarioa da, tirada handikoa. *Nosotros*, aldiz, aldizkari industrial da, bertako langileentzat egiten dena, 30 milako tirada duena. Konpainia honetan irauten du Martinek harrezkero, Euskal Herrira etorri arte, alegia.



Menahem Begin politikari israeldarra elkarrizketatzen, *Elite* aldizkarian. (1950)


## Lanak eta sariak

**B**errogeita hamarreko hamarkadan idatzi du lan periodistiko gehien Martinek, guztira ia hirurehun. Hainbat sari jaso ditu hamarkada honetan. Lehenengoa, 1950ean, eta euskaraz. Euskal Etxean ospaturiko lehiaketa baterako idatzi zuen *Itzalleak* ipuina eta berak jaso zuen lehen saria. Lehiaketa irabazteak berak baino poz handiagoa eman zion Martini sari gisa 1959an eman zioten «urrezko domina» Jose Antonio Agirre lehendakariak eman izana.

Hamarkada horretan sari gehiago ere jaso du, Venezuelako gizartean oso inportanteak zirenak: 1955ean, *El Nacional* egunkariak antolaturiko Narra-

zio Laburren lehen saria *Un real de sueño sobre un andamio*-rekin; 1957an, egunkari beraren Erreportaia saria *San Rafael de Mucuchíes*-ekin; 1957an, Ipuin Lehiaketan, bigarren saria, *La luz se apaga al amanecer*-ekin; urte berean, *El Universal* egunkariak antolaturiko Ipuin Lehiaketan bigarren saria, *La semilla vieja*-ri esker; *Estampas* aldizkariak antolaturiko ipuinen sariketan ere bigarren saria.

Sariak irabazteaz gainera liburuak argitaratu ditu, batzuk elkarlanean eta beste batzuk autore bakar gisa: *Imágenes de Semana Santa en Venezuela*, *Un real de sueño sobre un anda-*




Caracaseko udaletxean, hitz-lauzko Sari Muzipalean ohorezko aipamena. Kontzejuko presidente Cuevas Rincón ageri da saria ematen; Carlos Rangel presidenteordea da bestea. (1965)



*mio, Los Vascos en Venezuela* eta *La Iglesia de mi pueblo*.

Bere bizitza pertsonala ere urte hauetantxe finkatzen da: 1955ean ezkontzen da Ana Maria Martinez Urreiztieta santurtziarrarekin. Suitzan ezkondu ziren, sendatzera Caracasetik Europara etorria baitzen Anamari. Hamarkada berean jaioak dira Unai semea eta Itxaso alaba, eta 1964koa da Ainara.



Ugalde-Martinez Urreiztieta familia osorik. Ordurako jaioa zen Miren Ainara. (1965?)

Hirurogeiko hamarkadaren hasieran etenaldi berri bat egiten du Martinek bere lanean. Orain ere ikastera joateko, bere formazioa hobetzeko. *Standard Oil C°*-ren beka bat lortu du horretarako. Oraingoan familia eta guzti, bi urterako doa Ipar Ameriketako Evanstonera, kazetaritza egitera. Bi titulu ateratzen

ditu: 1961ean *Bachelor of Science of Journalism* (BS) eta 1962an *Master of Science of Journalism* (MS), iritzi publikoan eta masa-komunikazioan espezialdurik.


Evanston-etik bueltan, *Creole*-ra dator atzera, eta oraingoan maila bat gorago, *El Farol* zuzentzeaz gainera *Nosotros* ere berak gain-zuzentzen baitu.

Urte hauetan zortzi liburu idatzi ditu, eta sei argitaratu. Martinen produkzio idatzian aldaketa nabarmena gertatzen da urte hauetan, bai kazetagintzan eta bai literatur produkzioan.

Kazetari gisa idatziriko produkzioan, aurreko hamarkadako baino murriztagoa da uzta: 100 bat artikulua gutxiago, guztira. Bertako organoetan ateratzen den produkzioa sakanatu eta moteldu egin du, biak batera. Baina ez da hori seinalagarriena, baizik eta hau: euskal aldizkarietan ezker-eskubi idazten hasi da. *Alderdi*, *Euzko Gaztedi*, *Eusko Deya*, *Tierra Vasca* eta *Zeruko Argia*-n idazten du maizenik.

Zer gertatu da? Martinen burua jiratu egin da, eta Euskal Herrira begira jarri da. Martinen literaturgintzan ere agerikoa da aldaketa. Batetik, euskaraz erdaraz baino gehiago argitaratzen du; bestetik, erreportaiak eta ipuinaz gainera, saioa ere lantzen du: *Cuando los peces mueren de sed* erreportai bilduma, 1963an; *Las manos grandes de la niebla*, ipuin bilduma, 1964an; eta *Unamuno y el vascuence* saiakera. Aurreko biak Venezuelako irakurlearentzat, eta azken hau euskal diasporakoarentzat.

Bestalde, 1961ean *Iltzalleak* bildumatxoa argitaratzen du, Euskal Etxeko saria irabazi zuen ipuina, beste batzuez osatua. Diasporako eta barneko euskal irakurleentzat idatzia da. Martinek urte hauetan euskaraz idatzi duen gehiena haur literatura alorrekoa da: *Ama gaxo dago* antzerkia, 1964; *Gurpegin aspaldi gertatua* antzerkia, 1965; *Sorgiñaren urrea: umeentzako kontuak*, 1966; *Panpiñak*, 1968.




Haurrak, bere haurrak, euskaraz eskolatu ahal izateko idatzi ditu obra horiek. Txikiena ez da jaio, baina beste biek materialak behar dituzte, eta ez dagoen lekuan ezin aurkitu. Irakurgai faltaz oso kezkatu dago Martin, eta hutsunea betetzeko idazten du, aita euskaltzale denez. Seme-alabak euskaldun hazi eta hezi nahi ditu.

Urte hauetan bere betiko kezka larritu egiten zaizkio Martini. Euskararen eta abertzaletasunaren bilakaera dira nagusienak. Lekuko

egokiak dira *Alderdi*-n argitaratu zuen *Euzkadi, ¿a dónde va?* eta *Tierra Vasca*-n agertu zuen *El euskera se muere irremediabilmente*. Biek ala biek inarrosi zituzten bazterrak euskaltzale eta abertzaleen inguruetan.

Abertzaleen barruan hamarkada honetan sortuz doan kraskadurak loa kentzen dio Martini. Ezinegon hori artikulu askotan da nabaria. Batzen eta elkartzen gaituena bereizten eta aldentzen duena baino garrantzi han-



*Unamuno y el vascuence* «kontrasaio» gisa argitaratu eman zuen 1966an Martin Ugaldek, Buenos Aireseko *Ekin* argitaletxean



diagokoa dela azpimarratzen du beti Martinek. Baina ez artikuluetan bakarrik bere jarreretan ere bai. Eta halako batean, protagonistekin aurrez aurre egotea erabakitzen du 1964an, abioia hartu, bere poltsikotik dena ordaindu eta oporrak baliatuz Caracasetik Euskal Herrira dator, Iparraldera, bi parteekin egotera, errealitatea bertatik bertara ikustera. Bi parteak ETA eta EAJ dira.

ETAko buruzagitzarekin bildu da: Txillardegi, Benito del Valle, Irigarai eta Julen Madariaga. Eusko Alderdi Jeltzaleak Beyrisen zituen batzuekin ere bai: Unzeta, Solaun eta Eli Etxeberriarekin. Eta, noski, bere lehengusu Eusebio Zubillagarekin, hau baitzen zubigile kasu honetan.

## ***Euskal Herrira, atzera***

Martin 1969an itzultzen da Euskal Herrira. Baina Euskal Herrian ez duela lana erraza izango, eta aurrez hasia da lan bila: Genevako OMSen edo Pariseko Unesco inguruan, Alberto Onaindia, eta Jose Mari Bengoa tarteko.

Estatu espainiarrean sartzeko gestiotan ere badabil. Ez diote uzten. Baina emazteak eta haurrek ahal dutenez, 1967an datoz Irunera bizitzera, muga ondora. Bi urte beranduago etorriko da Martin bera. Hondarribian kokatzen da familia berria.

Erabaki honekin «El Dorado» atzean uzten duela Martinek idatzi du Pelay Orozko Halaxe da, status sozial inbidiagarria eta kazetari eta idazle karrera arrakastatsua uzten



Alberto Onaindiarekin

ditu. Aberri berri hartako ospea, gizarte-harremanak, bere lagunartea atzean uzten ditu. Baita bere gurasoak eta anaia bakarra ere.

Arrazoi bat baino gehiago izan zituen Martinek Euskal Herrira itzultzearen eragile. Indar handienaz agertzen dena seme-alabak euskaldun hazi eta heztearena da.

Baditu berak ere proiektu propioak. Evans-ton-etik pasa ondoren, alegia, kazetaritza ikastaroak egin ondoren, bere burua guztiz prestatua ikusten du profesionalki eta bere hoberena euskararentzat eta Euskal Herriarentzat eman nahi du. Burua altxa ezinik ikusten duen euskal kulturaren alde baduela berak zer eskainirik ikusten du. Bere jaioterrian lan egin nahi du, eta euskaraz.

Motibo politikorik ere ez zaio falta. Agirre lehendakariaren heriotzak, 1960an, sekulako kolpea eman zion Martini. Hutsune hori, Martinen ustetan, ezin du aurrerantzean pertsona bakar batek bete. Askoren artean ordezkatzekoa da, eta bera litzateke asko horietako bat.

Venezuelatik Euskal Herrira aldatzea, aldaketa geografikoa baino zerbait gehiago da, askoz gehiago. Martin datorrenean, Franco oraindik bizi da, euskal gizartea bor-bor dago, abertzaletasunean ez dago batasunik, euskalgintzan enfrentamendua da nagusi «h» dela eta ez dela. Horra Martinek aurkitzen duen Euskal Herria.

## **Lan bila**

Ameriketan dagoela, Euskal Herrira itzultzeko «barne-erabakia» dei genezakeena hartzearekin batera lan bila hasten da, 1962an. Gutun bidez. Eugenio Arregi bezalako lagunei zer egin ote dezakeen hemen, galdetzen die. Berdin Zubillaga bere lehengusuari. Erantzun lasaigarririk ez du jasotzen. Lan-eskaintzarik are eta gutxiago. Bertaratu eta aproba bat egin dezala proposatzen diote, gehienez ere.

Europa zaharrean hasten da bila. Genevan badu lagun bat, abertzalea, eta haren bidez saiatzen da OMSen, Jose Mari Bengoaren bidez. Uzturreri ere laguntza eskatzen dio. Parisera ere idazten du, Alberto Onaindiari, honek Unescon lan egiten baitu. Prest dago kazetari lana, zein itzultzaile edo interpreta-riarena egiteko. Azkenik, inoren eskaintzarik gabe dator, esku hutsik. Euskararen munduan murgildu nahi eta ezin, euskaraz ezin baitzen sasoi horretan profesionalki bizi. Bekarik ere ez du lortzen.

Hala ere, Genevan eta Parisen ate joka darrai. Genevarako bidea nahikoa landua zuenean, hutsean gelditzen da. Martinek uste du Manuel Irujok moztu ziola bidea, honek Martin Euskal Herrian nahi baitzuen, aberri-lanetan. European ogibidea bilatzeko ahalegina Irujok moztu bazion, Juan Ajuriagerrak beste saio bat abortarazi zuen, aldi berean Martinen aspaldiko ilusioa zena eta egun ogi-bide bihur zitekeena: *kultur aldizkaria*.



Ameriketara bizi zela, Martinek bazuen Euskal Herrirako kultur aldizkari baten asmoa, aldizkari zabala, alderdien gaintik, eta gehiago dena, abertzaleen gaintik, euskotar guztientzat, abertzale eta ez abertzale. Elkarbizitza hobetuko zuen aldizkari bat nahi zuen Martinek. Demokrazian bizitzen hezteko, zioen berak.

Jose Mari Lasartek (Errepublikara garaian diputatu eta gero Parisen OPEko arduradunak) ezagutzen zuen Martinen proiektua eta sinestuz egiten zuen. Donostiako Kutxako bere lehengusuari hitz egin zion Lasartek, eta honek baietz. Orain babes kulturala behar zen, eta hori emateko prest agertu zen *Real Sociedad de Amigos del País*-eko Alvaro Valle Lersundi. Asmoa honela gauzaturik, Juanito Ajuriagerrari planteatu dio Martinek. Eta honek ezetz. Frankisten tranpa zela hori. Eta Martinek ameto eman eta diskretuki erretiratu egin zen.

Estatu espainiarrean sartu ahal izateko politikatik urrun mantentzeko baldintza bat jarri zion enbaxadore espainiarrak Martini. Baina


etorri eta urtebetegarrenean Ajuriagerraren taldekoa da Martin, barruko Alderdi Batzordeko kidea. Herriaren aldeko konpromiso politikoari ezin ziola ezetz eman, dio Martinek. Are gutxiago Juan Ajuriagerrak eskatuz gero. Honen eskutik egin zuen Martinek bidea politikan.

Martinen konpromiso politikoak bere punturik gorena hirurogeita hamarreko hamarkadako lehen aldirian izan du: 1970ean barruko batzorde erangikorreko kidea da; 1971n Alderdi izeneko EAJren aldizkari ofizial eta klandestinoaren zuzendaria da; urte berean, Leizaola lehendakari dela, Eusko Jaurlaritzako kontseilaria da, EAJren izenean, Joseba Rezola hil berriaren ordean. 1975eko ekainean utzi zuen kargua, bere borondatez.


Konpromiso politiko honek ordain gaiztoa izan du Martinentzat: 1973ko urriaren 18an polizia espainiarrak Estatutik kanpo bidaltzen du, Irungo kalabozoetatik pasaraziz. Iparralderantz iritsi eta Donibane Lohizunen jartzen da bizitzen, familia eta guzti. 1976ko iraila arte ezin izan du Irun aldera muga gurutzatu, nahiz eta ia urtebete lehenago Franco hila zen.



Chillida, Arzalluz eta Zabalaekin batera manifestazio batean,  
Bilbon. (1979)



Martin Ugalde eta Juan Ajuriagerra elkarren ondoan,  
Martini egindako omenaldian. (1977)



Carlos Garaikoetxearen lehen Jaurlaritzan harrera egin zieten Leizaolarekin klandestinitatean kontseilari izan zirenei.  
Ezkerrean, bigarren lerroan, ageri da Martin. (1983)



## Euskararen konpromisoa

Martinek Euskal Herrira etortzean euskaraz idatzi nahi zuen. *Zeruko Argia*-ra eta Euskaltzaindira hurbildu zen, baina ezin zuen horretatik bizi. Bestelako lan batzuei heldu behar izan zien bitartean.

Hizkuntzaren inguruko alderdi teoriko, historiko eta sozialen kezka aspaldiko du Martinek, bere hainbat idazlan eta bereziki *Unamuno y el vascuence* saioan agertzen direnez. 1977an Euskaltzaindiaren *El libro blanco del Euskera* zuzentzen du, esan nahi baita, argitaraketaz arduratu, laburpena egin, eta berdin prestaketa eta orrazketa egiten dituela. Horren segida den *Conflicto lingüístico en Euskadi* liburua laburtu eta berridatzi egiten du. Euskaraz, *Hizkuntza borroka Euskal Herrian*.


*Deia* egunkari sortuberrian zuzendariordea da Martin eta euskal taldearen arduraduna. *Euskarazko Deia*-k, abiapuntuan, kazeta bat kazetaren barruan izan nahi zuen, autonomia eta osoa, Martinen ardurapean. Bere taldera eraman zituen, Mikel Atxaga, Amatiño, Antton Aranburu, Nikolas Aldai. Eta Zuzendaritzaren bidez hartu ziren Miren Jone Azurza, Xabier Aranburu, Antton Zubikarai eta Juan Mari Mendizabalekin osatu zuen taldea. Egitasmo hura *Deia* egunkarian txertatzea eta bideratzea ezinezkoa gertatu zitzaionez, utzi egin zuen kargua, urtebetegarrenean.

*Nueva Síntesis de la Historia del País Vasco*

## Euskal kultura eta historian

Hutsunea bete nahi zuen. Baina zentsura garaia zen, eta Martinek «politikaz» aritzeko debekua zuen. Zer egin? Berak hitz egin beharrean, besteei hitz eginarazi, izena eta jakituria zutenei hain zuzen ere. Anbizio handiko plana egin zuen, gero argia ikusi dutenak bi liburu bakarrik badira ere: *Hablando con los vascos* eta *Hablando con Chillida, escultor vasco*. Lehenengo libururako elkarrizketatu zituen: Joxemiel Barandiaran, Koldo Mitxelena, P. Arrupe, Agustín Ibarrola, Ramon de la Sota, Isidoro Fagoaga. Beste liburu batzuk bidean gelditu ziren.

Martinen historiako lanek kezka bera dute jatorburuan: nork bere kultura eta historia ezagutzen ez badu nola izan nortasunaren kontzientzia? Guztiz desinformatua ikusi zuen herria, memoria historikoa elikatzeke materialik gabe. Historialari izan gabe historiaz idazten duen kazetaria da Martin. Kazetari gisa idazten duela historia, esaten du




berak. *Síntesis de la Historia del País Vasco* idazten du aurrena, 1974an. Argitaraldi ugari izan ditu. Ordain elebiduna ere badu. Urte batzuk beranduago *Nueva síntesis* idazten du, berritua, osatua eta kronologian luzatua, Garaikoe-txearen gobernualdirarte. Bitartean, 1981ean, Planeta-rekin argitaratu du *Historia de Euskadi*, sei liburuki mardul.


Euskal Herriaren eta abertzaletasunaren historiari gehiago ere idatzi du Martinek urte hauetan. Nabarmentzekoak dira biografiak. Idatzi dituenen artean daude: Sabino Arana

Goiri, Jose Antonio Agirre, Jesus Mari Leizaola, Lezo Urreiztieta, Aitzol. Esilioari buruz ere sarri idatzi du urte hauetan. Historiarekin eta egungo gizartearekin zerikusien duen saioa argitaratuz eman zion hamarkada honi hasiera Martinek, 1980an publikatu baitzuen *El problema vasco y su profunda raiz político-cultural*.

Laurogeiko hamarkadan Martin ez dabil politika lanetan. Eskaini dizkiote karguak eta postuak. Eta ez ditu hartu, sortu berri den Eusko Jaurlaritzakoak salbu. Bi lanpostu onartu ditu,



Martos zentsuratzaile militarrek *Hablando con los Vascos* liburuaren gain egindako txostena. (1973)



*Síntesis de la Historia del País Vasco* liburuaren zentsura-txostena. Jardon zentsuratzaileak egina. (1973)



biek ala biek euskararekin zerikusi zutenak, eta horregatixe onartuak, maila apalekoak izan arren: *Eusko Kontseilu Nagusiaren* aginduz Boletina euskaraz ematea (1979) eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailako *Euskarazko Arazoetarako zuzendaritza* (1982). Kargu handiagoei uko egin zien, baina hauei ezin ezetza eman.

Urte hauetan hasi da Martin literatura euskaraz lantzen. Eta sariak jasotzen. Euskal lanekin irabazi dituen lehen sariak bi ipuinentzat dira: *Erregetako izpiritu beltzarana* ipuinarekin Gasteizen Ignacio Aldecoa ipuin saria (1983), eta Irun ipuin saria 1984an *Mugarri galduen itsumundua* ipuinarekin. 1984koa da, baita ere, *Mantal urdina* ipuin liburuaren argitalpena, beka bati esker burutu duen bakarra.

## **Kazetaritza lanetan**

Gustuko ditu Martinek elkarrizketak. Oraingoan ere berak amestu zuen guztia ez du lortu, arrazoi bategatik edo besteagatik uko egin baitzuten Karlos Santamariak, Julian Ajuriagerrak, Alberto Onaindiak eta Bernaola musikariak. Baietza lortu eta elkarrizketatu 13 lagun egin ditu *Euskaldunek hitza* sailean 1986an: Antonio Maria Labaien, Santi Onaindia, Eusebio Erkiaga, Teodoro Hernandezena, Iratzeder, Joxemiel Barandiaran, Jesus Mari Leizaola, Manuel Lekuona, Basarri, Iñaki Azpiazu, Koldo Mitxelena, Augustin Zubikarai, Maritxu Barriola.

Urte hauetan inongo kazetatan ez du kargurik, erantzukizunik. Orainsu arte beti izan du lanposturen bat. Lehen bezala orain oparo



*Euskaldunon Egunkariaren* Akziodunen Batzarra. Mahaian, ezkerretik hasita, Txema Auzmendi, Joxemi Zumalabe, Martin Ugalde, Joan Mari Torrealdei eta Joseba Jaka. (1991)

idazten du, lehen baino ere oparoago orain. *Argia*-n, *Diario Vasco*-n eta beste askotan idazten du, baina sistematikoki bitan: bere herriko *Hondarribia* aldizkarian eta *Deia*-n. Ehundaka artikulua ditu hamarkada honetan *Deia*-n. Euskaraz eta erdaraz. Urte hauetako lagin balioa du 1989an argitaratu zuen artikulua bildumak: *Batasun eta zatiketen artean*.

Laurogeita hamarreko hamarkadan, Martin Ugalderen prentsa lankidetzak hirurehunik gora dira. Baina *Egunkaria* izan da urteo-

tan Martinen bihotzeko proiektua. Lehen ordutik izan da bera talde eragilean, *Egunkaria Sortzen*-en garaitik, 1989an hasita. *Euskaldunon Egunkaria* sortu den unetik bera izan da Administrazio Kontseiluko Lehendakaria 9 urtez, eta harrez gero Ohorezko Lehendakaria. *Egunkaria* gidatuz gainera bertan kolaboratu du astea joan eta astea etorri, 200 lankidetzatik gora. Hamarkada honetan egunkarietan idatzi duenaren erdia baino gehiago da *Egunkaria*-ri eman diona.




*Euskaldunon Egunkariaren* proiektuaren aurkezpen nagusia Bilbon. Mahaian, ezkerretik hasita, Joan Mari Torrealdeai, Martin Ugalde eta Joxemari Zumalabe. (1990)



### Liburu ugari

**L**aurogeita hamarreko hamarkadan, dozena bat liburu atera dira Martinen lanekin. Berrargitalpen gisakoak dira batzuk. Eta beste batzuk bere ekoizpen intelektual berriaren emaitzak.

Abagune aparta izan da 1992koa Martinen Ameriketako literatura eza-gutzera emateko. Urte horretan, jakina denez, Ameriketaren deskubrimenduaren urtemugaren kariatz, Espainiako Gobernuak egin zuenaren antzera, Eusko Jaurlaritzak hainbat ikerketa bultzatu zituen, euskaldunek Ameriketara izan zuten parte-hartzea aztertu eta goraipatzeko asmoz.



Martin Ugalde. Andoaindik Hondarribira Caracasetik barrena

Martinek Venezuelako garaian egindako lanak ezagutzeko parada izan dugu, horrela. Hango lana bilduz hiru liburu ematen dira argitara 1992an. *Anthropos* Bartzelonako argitaletxeak argitaratu zituen bi: *Cuentos I: De la nueva tierra y los inmigrantes* Iñaki Betiren sarrerarekin, eta *Cuentos II: De la inmensa soledad del hombre*. Eta hirugarren bat, *Mientras tanto fue creciendo la ciudad, La cultura del exilio vasco* sailean, José Angel Ascunce zuzenduta.

José Angel Ascuncek gehiagotan ere zuzendu du Martini buruzko azterketarik. Nazioarteko Kongresu bat ere antolatu zuen 2001eko azaroan, Xabier Apaolazarekin batera: *Martín de Ugalde, un hombre para un pueblo/Martin Ugaldek bere herria helburu* izenburupean. Kongresuko lan asko, gehienak, 2002an kale-ratu ditu *Saturraran* argialetxeak: *Martin Ugalde azterkizun/Encuentros con Martín Ugalde*.

Azken liburu honetan «Martin osoa» dago, nolabait esan. 90eko hamarkadako lanak, aldiz, Martinen literatura izan dute gai. Adibidez, Gorka Aulestiaren *Erbesteko euskal literaturaren antologia* edo J.A. Ascunceren *Antología de textos literarios del exilio vasco* liburu-ruetan.

## Omenaldiak

Hamarkada honen lehen aldian bi sari irabazi ditu Martinek bi obrekin: 1990ean *Itzulera baten historia* liburuak Eusko Jaurlaritzaren Jon Mirande nobela saria bereganatu du. Nobela honek bere emaztearen familiakoen itzuleraren historia kontatzen du. 1993an *Pedrotxo* eleberriak Euskaltzaindiaren Txomin Agirre nobela saria irabazi du.

Beste izaera bat dute aurrerantzean Martinek jasoko dituen sari edo omenaldiek.

Hamarkada honetan, hain zuzen ere 1993tik aurrera, euskal gizarteko hainbat erakunde, elkarte eta taldek bere esker ona agertu dio Martini. Beronen traiektoria, jarrera, eredia, lan erraldoia da orain saritu nahi dena, orokorrean. Martinen traiektoria pertsonala da orain omentzen dena.

Aipa ditzagun batzuk:

–1993 urtean, Korrika-8ak omenaldia eskaini dio eta omenaldiaren kariaz *Erroetatik mintzo* liburuan hainbat lan bildu ditu.



Andoaingo Omenaldia. Udaletxeko aretoan Martin eta emaztea, familia, euskaltzale eta lagunez inguratutik. (1997)



Martin Ugalderen lan askotan bizitza errealeko pertsonak agertzen dira

–1993 urtean, Euskaltzaindiak *Ohorezko Euskaltzain* izendatu du. Ameriketan zegoela hautatu zuen urgazle, eta 1973an berrizendatu eta agiria eman zion.

–1995 urtean, Euskal Idazleen Elkarteak ohorezko bazkide izendatu zuen.

–1996 urtean, azaroan, 75 urte betetzean hain zuzen ere, Hondarribiko zenbait lagunekin batera, *Jakin* taldeak, *Euskaldunon Egunkaria*-ren laguntzaz, bazkari omenaldia eskaini dio. *Jakin*-ek Aginte-makila entregatu dio eta *Egunkaria*-k bere ikurraren eskultura.

–1996 urtean, azaroan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamenduak sakelako erlojua oparitu dio «bizitza osoko lanaren eskergarri».

–1997 urtean, martxoan, Manuel Larramendi Kultur Bazkunak *Ohorezko Lehendakari* izendatu du.

–1997 urtean, Andoaingo Udalak Seme kutun izendatu du eta domina eman dio. Horren kariaz kultur astea antolatu da, bere bizitza eta lana aztertu eta ezagutzera emateko asmoz.



Andoaingo Omenaldia. Martin Ugalde Larramendi Kultur Bazkunako Ohorezko Lehendakari izendatuta, oparia jasotzen Eugenio Arregiren eskutik. (1997)

–1997 urtean, ekainean, Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietan *Ohorezko Aipamena* jaso du, euskarazko kazetaritza profesionaltasun-bidean aitzindari izateagatik.

–1998 urtean, azaroan, Euskalgintza Elkarlanean Fundazioak, bere lana eta eredia eskertuz, *Merezimendua Saria* eman dio milioi bat pezetako txekearekin batera. Eta gainera, haren liburu (auto) biografikoa eman du argitara: *Martin Ugalde. Andoaindik Hondarribira Caracasetik barrena*.

–1999 urtean, Euskal Herriko Unibertsitateak *Honoris Causa* doktore izendatu du, kazetari gisa egindako lanagatik.

–2000 urtean, apirilean, Andoaingo Kultur Parkeari Martin Ugalde izena jarri zaio, eta Martinek berak jartzen du lehen harria.

–2001 urtean, azaroan, Eusko Alkartasunak omenaldia egin dio Donostiako Miramar-en.

–2002 urtean, urtarrilean, Eusko Jaurlaritzak *Lan Onari Saria* eman dio.



Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen 1993an. Bere eskuinean Bernardo Estornes Lasa, eta aurrean Jean Haritschelar euskaltzainburua agertzen dira. (1993)





Korrika 8-aren azken kilometroa Martin Ugaldek Nikola bilobarekin egin zuen. (1993)


## Abertzaletasuna

Martinen bizitzan, bere bidea eta bere lana ulertzeko unean badira zenbait ardatz. Horiek gidatu dute Martinen nondik norakoa. Hala nola, abertzaletasuna, euskaltzaletasuna, literatura, kazetaritza. Alor bakoitzean frogak eman ditu. Maitasuna obrekin erakutsi behar dela uste du Martinek, hitzetatik hara- tago.


Martin errotik abertzalea izan da bizitza guz- tian: txikitan aitaren ondoan, Caracasera iritsi berritan EAJko militante eta 1985az gero EAkoa. Alderdi bateko zein besteko izan, Martin ez da alderdi batean kabitzekoa ez baita alderdi gizona, aberri gizona baizik. Bere abertzaletasunak herrigintza du oinarri eta helburu.

Herriarekiko duen konpromiso politikoak eraginda, Venezuelan *Eusko Gaztedi* elkarte- a sortu zuen, Euskal Etxeko lehendakari izan zen, *Euzkadi* aldizkari zuzendu zuen. Eta bere herrira itzuli eta gero, EAJko EBBkoa izan zen, EAJren *Alderdi* organoa zuzendu zuen eta klandestinitateko Eusko Jaurlaritzan EAJren ordezkari izan zen.

Idazle eta kazetari gisa ere asko idatzi du abertzaletasunaren inguruan. Abertzaletasun hori bai gaietan eta bai ikuspegietan landu du. Ehundaka artikulua eman ditu egunkari eta aldizkarietan, eta hainbat liburu ere ikuspegi berean mamitu ditu.



Lankide zuen Garrido argazkilariak Martini eskainitako argazkia



Leizaolaren zertifikatua



## Euskaltzaletasuna

Halako batean konpromiso politiko aktiboa alde batera utzi du Martinek. Euskara sekula ez. Politikaren aurretik ikusi du beti euskara. Politikari ezetz esan dakiok, euskarari ez, idatzi du berak. Abertzaletasun euskaltzalea da berea.

Venezuelan hasi zen Martin euskaraz idazten. Bere meritua da Venezuelan euskarazko lehen liburua idatzi izana. Euskara lantzeko tresna egokirik gabe ere, bospasei liburu idatzi zituen esilioan. Handik hasi zen *Zeruko Argia* astekarian idazten.

Euskararen defentsan, bestalde, makina bat lan egin da Venezuelan: sona handikoak izan ziren diasporako aldizkarietan idatzi zituen zenbait artikulua; eta zertan esanik ez *Unamuno y el vascoence* saioa.



Agirre lehendakariarekin Caracaseko kazetari-taldea.  
Martinek antolatutako bilera

Jada 1966an idatzi zuen Martinek gure liburuak euskara batura jo behar dutela, eta urte berean onartu zituen atera berriak ziren euskara baturanzko Baionako erabakiak. Euskal Herrira itzultzean, bide beretik jarraitu zuen: Euskaltzaindiaren bidea onartu zuen eta euskara batuaren inguruan argia egiten saiatu, elkarrizketa bidez. Lan asko egin da Martin *Euskararen liburu zuria* eta *Hizkuntza borroka Euskal Herrian* proiektuak liburu bihurtzen.

Eta, azkenik, bada alderdi bat guztiz azpimarragarria Martinen traiektorian: erdaratik euskarara igaro izana, alegia. Gaztelaniaz egin zen idazle eta kazetari Martin. Hizkuntza horretan izan du arrakasta, eta ez nolana hiko. Eta hala ere, gainerako konpromisoak uko egin eta euskaraz idaztera pasa da, ia-ia osoki, 90eko hamarkadan.



Europako Parlamenturako EA alderdiko taldea,  
Donostiako Alderdi Eder-en. (1988)



## Literatura eta kazetaritza

Gaztelaniaz eta euskaraz idatzi du Martinek. Bi hizkuntzatan, bai, baina paradoxa badirudi ere Koldo Izagirrek egoki dio Martin Ugalde idazle elebakarra dela: venezuelarrei haien hizkeran egin die eta guri geurean.

Eleberriak eta ipuinak idatzi ditu. Antzerki pare bat ere bai euskaraz. Martinen obraren aztertzaileek balio ugari azpimarratzen dituzte: pertsonaien gizatasuna; ikusi eta bizi duenaz idaztea, folklorekeriatik urrun; jende apal eta ahulekiko xamurtasuna eta konpromisoa; eguneroko bizipenak eta bazterreko jendearen bizimoduak begirunez tratatzea; eta alderdi formaletan: prozedura linguistiko eta estilistikoak, bere konta-teknika, hizkeraren ñabardura...

Euskaraz literatura landu duenean, Martinek ez du jo erdarazko bere obrari anaia txiki bat egitera, Koldo Izagirrek seinatu duenez. Gaztelaniaz idatzi duenaren kategoria bera eman dio euskarazko lanari. Bost ipuin liburu, hiru eleberri eta bi antzerkilan eman ditu euskaraz.

Ipuin liburuetatik bi Venezuelen bizi zenean idatzi zituen: *Iltzalleak* (1961) eta *Sorgiñaren urrea: umeentzako kontuak* (1966). Beste hirurak, sariak eta beka tarteko, Euskal Herrira itzuli ondokoak dira: *Mantal urdina* (1984), *Mugarri galduen itsumundua* (1985) eta *Bihotza golkoan* (1990). Horrez gainera bere obra ezauguetako bat euskarara itzuli diote: *Itsasoa ur-bazter luzea da*.

Ipuingintzan maisutasuna frogatu eta gero egin zuen eleberrirako jauzia, 90eko hamar-

kadan. Eta hiru nobela utzi ditu: *Itzulera baten historia* (1990), *Pedrotxo* (1994), *Mohamed edo parroko gorria* (2000).

Gaztelaniaz ez bezala, euskaraz antzerkia landu du. Bi lan, guztira. Biak 60ko hamarkadaren erdialdekoak, euskarazko material faltaz Martin oso kezkatua zegoen aldikoak: *Ama gaxo dago* (1964) eta *Gurpegi'n aspaldi gertatua* (1965), argitaragabea.

Maila eta eskarmentu handiko kazetaria da Martin. Ehundaka asko artikulua eman ditu han eta hemen. Eta dozenerditik gora dira berak zuzendu dituen aldizkari zein egunkariak, bai Venezuelen eta bai Euskal Herrian. Kazetari gisa, denetik egin du, maisukiro egin ere: erreportaia, kronika, iritzi-artikulua, elkarrizketa, biografia. Hogeita hamar bat komunikabide desberdinetan idatzi du.

Literatura eta kazetaritzaz gainera bestelako generoak ere landu ditu Martinek, bereziki saiakera, elkarrizketak, biografia. Lan hauetan Euskal Herria, euskaldunen paraderoa, esilioa, euskara, euskal kultura agertzen dira behin eta berriz, hauek baitira Martinen kezka nagusiak.

Martin Ugalderen bizitza eta obratan zehar egin dugun bidean, ikusi dugu zein emankor, aberats eta polifazetikoa den Martin. Bere konpromisoaren sakontasuna ere agerian gelditu da, hitzetan eta egintzetan, euskarari buruz zein herrigintzari buruz. Bere gizatasunak, pertsona eta ideiekiko leialtasunak, zalduntasunak, duintasunak, zuzentasunak eta maitasunak eredugarri egiten dute Martin.

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:*

- *Joan Mari Torrealdai. Andoaindik Hondarribira Caracasetik barrena*
- *Argia astekaria (Aitor Bayo)*

*Egilearen oharra:*

*Liburuxka honetako argazkiak Joan Mari Torrealdairen Martín Ugalde Andoaindik Hondarribira Caracasetik barrena liburutik jaso dira, salbu azaleko eta I.orrikoa*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2003ko uztaila

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: Gráficas Varona, S.A.  
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

Inprimaketa: Gráficas Varona, S.A.  
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

ISBN: 84-457-1987-4 (Lan osoarena)  
84-457-1989-0

L.G.: S. 858-2003